



KARATERAKO

2017ko ARAUTEGIA

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Karate Federazioarekin lankidetzan, 2017ko maiatzaren 27an, Gasteizko Arriaga Udal Kiroldegian, (Araba). Hauxe duzue jokoen araudia:

1. MODALITATEAK

- Mutilen eta nesken banakako kata
- Mutilen eta nesken infantil mailako kumite

2. PARTAIDETZA

Foru aldundiak ateratako eskola kirolean lizentzia Karate modalitatean duten neska mutilak parte hartu dezakete. Aipatutako lizentzia Eskolarteko Kirol Jokoak ospatuko diren egunean aurkeztu beharko da.

Infantil mailan 2003-2004ean jaiotako neska mutilak.

- Banakako Kata: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko
- Banakako Kumite: 4 lehiakide lurralde-federazio, maila eta pisu bakoitzeko

Alebin mailan 2005-2006ean jaiotako neska mutilak.

- Banakako Kata: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko

3. PISUAK

Infantil mutilen banakako Kumite:

- | | |
|------------|------------|
| → - 40 kg. | → - 55 kg |
| → - 45kg. | → - 60kg |
| → - 50 kg. | → + 60 kgs |



Infantil nesken banakako Kumite:

- - 43 kgs
- - 50kgs
- + 50 kgs.

Pisuren batean bi partaide edo gutxiago izan ezker, hurrengo pisu kategorian parte hartzeko aukera izango du, azkeneko pisu kategorian aldiz aurreko pisuan hartzeko aukera izango du, guztien parte hartzea ahalbideratze aldera.

4. ARBITRAJEA

Euskadiko Karate Federazioaren araudia kontuan izango da berezitasun hauek kontuan izanda:

4.1. KATA modalidadean

4.1.1. Alebin mailan.-

- a. 2 puntuazio-erronda egingo dituzte eta 8 lehenek zuzeneko kanporaketako pool-ean sartuko dira.
- b. Dominarako ez diren bira guztietan oinarrizko kata zerrendatik egingo dute.
- c. Lehenengo biran eginiko kata errepikatzeko aukerarik ez da izango.
- d. Bigarren biratik aurrera, kata errepikatzeko aukera izango da baina inoiz ez azkeneko aldiz egindakoa.
- e. Finaletan eta hirugarren postuetarako infantil-jubenil listetako katak egin ahal izango dira.

4.1.2 Infantil maila.-

- a. Lehenengo biran eginiko kata oinarrizkoa izango da eta errepikatzeko aukerarik ez da izango.
- b. Bigarren biratik aurrera, infantil-jubenil zerrendako katak egingo dituzte. Kata errepikatzeko aukera izango da baina inoiz ez azkeneko aldiz egindakoa.
- c. Finalak eta hirugarren postuetarako aukera askeko kata bat egiteko modua izango da.

4.2 KUMITE modalitatea

2 minutuko denbora.

Puntuaketa.- mugarik gabe, 6 puntuko tartea.

Penalizazioa.- Gehiengo zorrotasuna.

Jodan puntuak.- Gehiengo tolerantzia.

Babesak.- Jubeniletakoak derrigorrez. Homologatuak, honako hauek izango direlarik:

Guantillas gorri edo urdinak
Espinillera gorri edo urdinak
Kanpoko petoa
Kokilla

Ahorako babesa
Burrurako babesa (kaskoa)
Besaurrerako babesa
Neskendako bularrerako babesa

5. PISAKETA ETA KONTROLA

Lehiaketaren egun berean pisatuko dira lehiakideak, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Partaideren batek une horretan pisu egokirik ez badu, automatikoki jokatik kanpo geldituko da, ezingo du ordezkorik ekarri, ez eta beste pisu-kategoria batean sartu ere.

Partaideak pisaketa unean dagokien Foru Aldundiko eskola kiroleko txartela aurkeztu beharko dute.

6. ARDURADUNAK

Lurralde bakoitzeko federazioak ordezkari bat izendatuko du izen ematerako eta Zuzendaritza teknikoarekin harremanetarako, edozein azalpenerako eta baita bere lurraldeetako partaideena ere. Coach edo entrenatzaileak lehiaketa eremuan txandalez egon beharko dira, kaleko arropa galerazita egonik.

7. IZEN EMATEA

Parte hartzeko eskariak Euskadiko Karate Federazioaren egoitzara helarazi behar dira 2016ko maiatzaren 23erako, astelehena 12:00ak baino lehen, orri ofiziala modu egokian beteta.



Dagokion Lurralde Federazioaren ardura izango da berak aurkeztutako partaideek jokorako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea.

8. KIROL SARIAK

Honako sari hauek banatuko dira:

→ Domina kategorია eta pisu guztietako lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuentzat

9. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

10. AZKEN OHARRA

- a. Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:
14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.

f. Espainiako Karatearen Lagunen Federazioaren Araudiari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.

ERANSKINA

KATA ZERRENDA OFIZIALA JUVENIL-INFANTIL

OINARRIZKO KATEN ZERRENDA

- | | |
|--|-------------------|
| 1. Pinan ó Heian | Taikyokus |
| 2. Gekisai-Daini | Pinan o Heian |
| 3. Gekisai-Daichi | Gekisai-Daini |
| 4. Gekisai-Daisan | Gekisai-Daichi |
| 5. Fukio-Kata | Gekisai-Daisan |
| 6. Ananku | Fukio-Kata |
| 7. Bassai-Dai, Passai | Geki-Ha |
| 8. Enpi, Tomari no wanshu, Wanshu (wado-ryu) | Hokei (Taikiokus) |
| 9. Geki-Ha | |
| 10. Gyu-Roku | |
| 11. Jiin | |
| 12. Jion | |
| 13. Jin-I | |
| 14. Kanku-Dai, Koshokun-Dai. Kushanku | |
| 15. Kanku-Sho, Koshokun Sho | |
| 16. Kururunfa | |
| 17. Naifanchin-Shodan, Tekki-Shodan | |
| 18. Nipaipo | |
| 19. Niseishi, Nijushiho | |
| 20. Rohai | |
| 21. Saifa | |
| 22. Sanseru | |
| 23. Seienchin | |
| 24. Sepai | |
| 25. Wankan | |